

HELDUENTZAKO IKASTAROEN ARAUDIA **2018-2019**

IZENA EMATEKO EPEA

Inskripzio librea 2018ko uztailaren 2tik aurrera.

Oro har, "Kirol Ekintzak" eta "Kirol Ura" izeneko jardueretan 14 urtetik aurrera parte hartu ahal izango da, orientazio edota intentsitatea dela eta 16 urtetik gorakoentzat gomendatzen diren ekintzetan izan ezik (eskaintzan grisez nabarmenduak).

2018-2019 DENBORALDIKO EGUTEGIA

- Ikastaroak urriaren 1ean hasiko dira eta ekainaren 30ean bukatuko dira.
- Jaiegun ofizialak ez dira eskola e gunak izango.
- Ondorengo egunen artean ohiko saioen ordez oporraldiko programazio berezi bat eskainiko da:
 - o 2018ko abenduaren 21etik 2019ko urtarrilaren 6ra arte
 - o 2019ko apirilaren 15etik 28ra arte

ORDAINKETAK

- Ikastaroen ordainketak bankutik helbideratuta eta hilean behin kobratuko dira.
- Alta berriak izena emateko momentuan esku diruz edo txartelaz ordaindu beharko dira. Gainontzeko kuotak bankutik helbideratuta kobratuko dira.
- Nahiz eta hilabete bakoitzak saio kopuru desberdina eduki ikastaroaren hilabeteko kuotaren emaitza finkoa da.

PLAZAK BERRITZEA

- Ikastarogileek 2018-2019 denboraldi osoan zehar mantenduko dute ikastaroan duten plaza.
- Berriaz baja eman nahi dela adierazi ezean, plaza automatikoki berrituko da mugarik gabe 2019-2020 hurrengo denboraldirako. "Igeriketa" eta "klubak" taldeetan plazak automatikoki berrituko dira, taldean baja eman nahi dela berriaz adierazi ezean.
- Plaza denboraldi batetik hurrengora mantentzen duten ikastarogileak uztailean eta irailean eskaintzen diren "Kirol ekintzak" izeneko jardueretara doan joan ahal izango dira. Kasu horretan urriko kuota uztailean igorriko da.

BAJAK IKASTAROETAN

- Ikastaroan baja eman nahi duen pertsonak ikastaroa egiten duen kiroldegiko harreran adierazi beharko du aurreko hilabeteko 20a baino lehen. Horretarako, bidezko inprimakia bete eta harreran aurkeztu beharko du.
- Jarduera egiteko ezintasuna duela adierazten duen agiri medikua aurkezten duenari, ordaindutako kopuruari dagokion zati proportzionala itzuliko zaio.
- Ikastaroetako kuotak ez ordaintzearen ondorioa beste ikastaroetan izena emateko eskubidea eta plaza galtzea izango da.

IKASTAROAK BERTAN BEHERA UZTEA ETA ANTOLAKETA ALDAKETAK

- Erreterriako Udalak jarduera bertan behera utzi ahal izango ditu ikastaroa egiteko gutxieneko pertsona kopuru batek izena ematen ez badu.

- Erreterriako Udalak, antolaketa arrazoiak direla eta, ikastaroen ordutegia eta egunak aldatu ahal izango ditu, baita ikastaroak ematen dituzten langileak aldatu ere.

ALDAGELAN ERABILERA

- Derrigorrezkoa da ikastarogileentzat erreserbatutako aldagelak soilik erabiltzea.
- Derrigorrezkoa da instalazioetako langileen jarraibideak kontuan hartzea.
- Derrigorrezkoa da dutxa guneeetan sartzeko oinetako egokiak erabiltzea gomendatzen da (txankletak edo antzekoak).

KIROL EKINTZAK

"Kirol Ekintzak" jarduerak aukera ematen du aretoko eta igerilekuko jardura sortan eskaintzen diren ekintza guztietan parte hartzeko, sarbide mugarik gabe, Galtzarabordan zein Fanderian, baita "Kontrola" eta "Menperatzea" igeriketa ikastaroetan eta "klubak" izeneko ekintzetan ere.

Jarduera zehatz batera sartzea aretoaren eta jardueraren aforoak mugatuko dute.

Progresio egokia bermatu eta ikasteko prozesua errazteko, igeriketako "Kontrola" eta "Menperatzea" ikastaroetarako alde zuzeneko izen-ematea egin beharko da. Talde horiek itxiak izango dira, eta, plaza librerik izanez gero, parte-hartzaile gehiago sartu ahal izango dira. Pertsona bakoitzak talde bakar batean eman ahal izango du izena, txandaka lan egiten duten eta hori adierazten duten langileek izan ezik. Talde horietarako plaza kopuru mugatua izango da.

Klub izeneko ekintzetan parte hartzeko (Igeri Club, Runner's Club, Boxing Club eta Amafit Club) alde zuzeneko izen-ematea egin behar da. Talde horiek itxiak izango dira, eta, plaza librerik izanez gero, parte-hartzaile gehiago sartu ahal izango dira. Pertsona bakoitzak gehienez bi taldeetan eman ahal izango du izena. Klubetako plazak mugatuak dira.

Plaza mantentzeko eskubidea galduko da, bai igeriketa taldeetan bai klubetan, jarraian hiru astetan ekintzara ez joateagatik.

KIROL URA

"Kirol Ura" aukera ematen du jarduera sorta honetan eskaintzen diren uretako jardura guztietan parte hartzeko, sartzeko inolako mugarik gabe, bai Galtzarabordan bai Fanderian, baita "Kontrola" eta "Menperatzea" igeriketa ikastaroetan ere, alde zuzeneko talde horietakoren batean izena emanda.

Jarduera zehatz batera sartzea jardueraren aforoaren arabera izango da.

Progresio egokia bermatu eta ikasteko prozesua errazteko, igeriketako "Kontrola" eta "Menperatzea" ikastaroetarako alde zuzeneko izen-ematea egin beharko da. Talde horiek itxiak izango dira, eta, plaza librerik izanez gero, parte-hartzaile gehiago sartu ahal izango dira. Pertsona bakoitzak talde bakar batean eman ahal izango du izena, txandaka lan egiten duten eta hori adierazten duten langileek izan ezik. Talde horietarako plaza kopuru mugatua izango da.

Ikastarogileak ikastaroan duen bilakaeraren arabera, beste talde batean kokatu ahal izango da.

Plaza mantentzeko eskubidea galduko da igeriketa taldeetan jarraian hiru astetan ekintzara ez joateagatik.